

Etika Publikorako Batzordea

Gaia: 02/2026

**ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAREN ERABAKIA, _____ KO ZUZENDARI NAGUSIAK
EGINDAKO KONTSULTARI BURUZ. KONTSULTA HARTAN GALDETZEN DU EA INTERES-
GATAZKARIK SOR LITEKEEN BERE EZKONTIDEAREN LAN-JARDUERAREN ONDORIOZ**

1.- 2026ko apirilaren 16an, kontsultagileak, _____ri atxikita dagoen _____sozietate publikoko zuzendari nagusiak, idazki bat bidali zion Etika Publikorako Batzordeari (EPB). Idazki horren bitartez, bere inguruabar pertsonal baten berri ematen du, zalantzak sor baititzake integritatearen eta interes-gatazken prebentzioaren ikuspegitik.

2.- Zehazki, kontsultagileak azaldu du bere ezkontidea enpresa pribatu batean hasi zela lanean 2026ko martxoan, 1. mailako ofizialaren kategoria profesionalarekin, eta ez duela betetzen zuzendaritzako edo ordezkartzako zereginik.

3.- Prebentzioz baino ez da egiten kontsulta, gaur egun ez baitago inolako kontratu-harremanik enpresa horren eta kontsultagilea kide den sozietate publikoen artean, eta ez baita inolako esku-hartzerik izan aipatutako merkataritza-entitateari eragiten dioten prozeduretan.

4.- Hala ere, kontsultagileak Batzorde honen irizpidea eskatu du, jakin nahi baitu ea haren iritziz interes-gatazkarik sor litekeen, etorkizunean, baldin eta bere ezkontidea lanean dagoen enpresa partaide edo esleipendun balitz sozietate publiko horiek sustatutako kontratuetan.

5.- Horiek horrela, hauxe da Etika Publikorako Batzordeak, Etika eta Jokabide Kodearen 16.4 apartatuaren bigarren tarteak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, aho batez hartu duen

ERABAKIA

I.- AURREKARIAK

1.- Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartu zuen Etika eta Jokabide Kodea, eta gaur egun 2016ko azaroaren 22an onartutako testu bateginean dago jasota. Bada, Etika eta Jokabide Kodearen helburua da erakundeen integritatea sustatzea, herritarrek erakunde publikoengan duten konfiantza indartzea eta kodeari atxikitako kargu publikodunen eta horiekin parekatutakoen jarduna gidatu behar duten balio, printzipio eta jokabide-jarraibideak ezartzea.

2.- Kodeak balio hauek ditu ardatz: integritatea; bikaintasuna; politika eta kudeaketa bat etortzea; lidergoa, eta berrikuntza. Gainera, printzipio hauek ere biltzen ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernu irekia; zintzotasuna eta interes subjektiborik eza; errespetua, eta eredugarritasuna.

3.- Etika eta Jokabide Kodearen 16.3 1.d) apartatuak Etika Publikorako Batzorde honi ematen dio eskumena dituen balio, printzipio eta jokabide-jarraibideak interpretatzeari eta aplikatzeari buruz hari atxikitako pertsonak egin ditzaketen kontsulten berri izateko.

4.- Era berean, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeak integritate publikoko sistema bat eratzen du, zeinaren helburua baita prebenitzea interes pertsonal, familiar edo pribatuek funtzio publikoen jardun objektibo eta inpartzialak eragozteko edo eragotzi ahal izatea.

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAK AZTERTZEKO AURKEZTUTAKO GAIA

1.- Aztartzeko aurkeztu da ea kontsultagilearen ezkontidea enpresa pribatu batean lanean hasteak interes-gatazkarik eragin ote dezakeen _____ eta _____ sozietate publikoen administrazio-organoetako kide gisa dituen eginkizunak betetzeari dagokionez.

2.- Kontsultaren edukitik ondorioztatzen da une honetan ez dagoela inolako kontratu-harremanik ezkontidearen enpresa enplegatzailearen eta aipatutako sozietate publikoen artean, eta kontsultagileak ez duela inolako esku-hartzerik egin behar izan enpresa horren inguruko jarduketa, eztabaida edo erabakiren batean.

3.- Ondorioz, deskribatutako egoerak ez du aukerarik ematen une honetan benetako interes-gatazkarik dagoen ikusteko.

4.- Hala ere, Batzordeak uste du jakinarazitako inguruabarrak bai eragin dezakeela, etorkizunean, kasu zehatz batzuetan, interes-gatazka edo interes-gatazkaren itxura, bereziki ezkontideak lan egiten duen enpresak kontratu-prozeduretan edo jarduketetan parte hartzen duenean, baldin eta kontsultagileak prozedura edo jarduketa horien esku-hartze, informazio, eztabaida, gainbegiratze edo erabakietan parte hartu behar izan badu. Hain zuzen ere, Etika eta Jokabide Kodearen 11.2 apartatuaren arabera, interes-gatazka da, erabaki berean, lanpostu publikoaren interesak bat etortzea norberaren interes pribatuekin, zuzeneko senideen interesekin edo hirugarrenekin partekatutakoekin. Halaber, 11.3 apartatuak, e) eta f) letretan, berariaz jasotzen du «une horretan edo etorkizunean interes-gatazka bat egon daitekeela», eta agintzen du Batzorde honi berehala jakinarazi behar zaiola, abstentzioa formalizatu behar dela eta egoera horietakoren batean ez dagoen beste kargu baten esku utzi behar dela ardura. Ildo beretik, 1/2014 Legearen 6.3 eta 10. artikuluek abstenitzera behartzen dute gaian ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen interesak daudenean. Ondorio horietarako, ezkontidearen ordainsaria eta laneko jarraitutasuna familiaren interesa da, eta etxean ekonomiaren aldetik partekatutako interesa. Ezkontideak betetzen duen postua zuzendaritzakoa ez izateak arindu egiten du jokoan dagoen interesaren intentsitatea, baina ez du alde batera uzten abstenitzeko betebeharra, noizbait bat-etortze hori gerta baitaiteke. Horri gehitu behar zaio kontsulta hau egiteak berak agerian uzten duela aukera hori ez dela soilik teorikoa, baizik eta erreala.

5.- Batzordearen ustez, bereziki garrantzitsua da azpimarratzea kontsulta prebentzioz eta alde z aurretik egiten dela, eta hori guztiz koherentea da Etika eta Jokabide Kodearen oinarri diren integritate-, gardentasun-, eredugarritasun- eta erantzukizun-printzipioekin.

Hori guztia aintzat hartuta, Etika Publikorako Batzordeak hau erabaki du, aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa.- Adieraztea kontsultan deskribatutako egoera ez dela, gaur egun, interes-gatazka, Etika eta Jokabide Kodean eta ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Bigarrena.- Kontuan hartzea jakinarazitako inguruabarrak, etorkizuneko kasu jakin batzuetan, interes-gatazka edo interes-gatazkaren itxura ekar dezakeela, baldin eta kontsultagilearen ezkontidea lanean dagoen enpresak parte hartzen badu kontsultagileak bere eginkizunak betetzean esku hartu beharko lukeen prozedura edo jarduketetan. Ezkontideak betetzen duen

postua zuzendaritzakoa ez izateak arindu egiten du jokoan dagoen interesaren intentsitatea, baina ez du alde batera uzten abstenitzeko betebeharra, bat-etortze hori gertatzen denean.

Hirugarrena.- Gomendatzea, egoera hori gertatzen denean, kontsultagilea abstenitu egin dadila eragindako gaiari buruzko esku-hartze, informazio, eztabaida, gainbegiratze edo erabakietan parte hartzetik, eta berehala jakinaraz diezaiola, idatziz, batzorde honi, Etika eta Jokabide Kodearen 11.3.e) apartatuan ezarritakoari jarraikiz.

Laugarrena.- Gomendatzea barneko alerta-mekanismo bat ezar dadila, aldez aurretik identifikatu ahal izateko ea aipatutako enpresak parte hartzen duen kontsultagileak bere eginkizunak betetzen dituen sozietate publikoek sustatutako prozeduretan, abstentzioa sistematikoki aktibatu ahal izan dadin dagokion erabaki-katean.

Bosgarrena.- Positiboki baloratzea kontsultagileak prebentzioz egindakoa, Euskadiko etika publikoko sistema instituzionalak sustatzen dituen integritate publikoko estandarrekiko konpromisoaren eta ardura etikoaren adierazle baita.

María Ubarretxena Cid
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 23a.